

## ► MUTILOA



Ostiralean egindako sagardo dastaketa arrakastatsua suertatuz en aurtengoan ere. [OLAETXEA]

## Euskadiko karting txapelketa burutuko da gaur Mutiloan

SALOME OLAETXEA

MUTILOA. DV. Ostiralekoa egun ezin hobea izan zen: eguraldia lagun eta Mutiloako Sagardo dastaketa jendez gainezka. Mila pertsona baino gehiago gerturatu ziren sagardoa probatzera. Horrelako jaia antolatzeke "herriko frontoia txikia gelditu dela" bati baino gehiago entzun genion atzokoan.

28 sagardotegi desberdinetako sagar zukua zegoen dastatzeko, 1.200 botila inguru eta aurten ere, 9:30ak aldera dena bukatu zen.

Hamairu bat urte izango dira, lehenengo aldiz sagardo dastaketa hau egiten hasi zirela mutiloarrrek. Haseran, eliz atzea zen topagune, baina laister erabaki zen toki handiagoa eta babestua behar zela; arrezkero frontoian egiten da. Antolakuntzako kideek, otsaila-martxoan hasten dira lanean. Sagardotegi kolaboratzaileei deitzen zaie, kopurua jakiteko, dastaketa eguna baino aste-bete lehenago sagardoa herrira ekartzeko da eta hotzgailuan gordetzen da azkeneko momentuan ateratzeko. Dastaketa ondoren, oilasko errea jateko aukera izaten da. Baserriko 100 oilasko, okindegi batean erreak saldu ziren atzokoan bat-batean.

Mahaia jartzen dira frontoi aurrean oilaskoa jateko, eta bertan eta inguruko txoko guztiak erabiltzen ditu jendeak tripa betetzeko. Sagardo Dastaketa eta oilasko jatearen egunean, eta aurretik



28 sagardotegietako sagardoa edan ahal izan zen. [OLAETXEA]

Mutilorako, kontutan izanik herrian 165 pertsona bizi direla. Honek biztanlegoaren %25ak gutxigorabehera laguntzen duela suposatzen du. Baina urtez urte giro hobea sorteen dela ikusirik eta izugarrizko arrakasta lortu duenez herritarrak prest egoten dira lana egiten egun honetan.

Atzokoan, Joselu Anaiekin plaza dantzariz bete zen, gazteak, umeak ez horren gazteak... denak dantzan. Aspaldian Mutiloko plazak horrelakorik ez zuen jasaten, *Pakito Txokolatero* eta horrelakoak entzunez eta dantzatuz gozatu.

### Euskadiko karting proba

Gaurkoan, goizetik urtero beza-la Segurako Txistulariekin goiz eresia izango da. Eguerdian meza nagusia eta ondoren, Gabiriko Gomatz dantza taldearen saioa.

guztientzat. Baita eguerdian, Pelota partiduetan herriko gaztetxoak parte hartuko dute. Toka lehia-keta orokorra ere igande honetan egingo da bazkal aurretik.

Arratsaldeko 15:30etatik aurrera Euskadiko Karting Txapelketa maila desberdinetan. Zirkuitua herritik barrena izango da eta horregatik haserako ordutik 20:30etara plazatik goitik behera Lierniko bidegurutza eta urbanizazio berritik frontoirako bidea itxita egongo dira. Arratsaldez ere, 18:00etan Bola Txapelketak jarraituko du. Garikoiz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariak alaituko dute giroa egunen zehar.

### Bataloa

Eguerdian ospatuko den Meza Nagusian, Apaiztegiko Aitor eta Miren alabatxoa den Maialen Gar-